



BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun **ezinbestekoa** da mugikorrean bateria izatea, arazoren bat badaukagu edo zerbait behar badugu mugikorraren bitartez soluzioa arin aurki dezakegu.


Gainera, egokia iruditzen zaigu gure eguneroko bizitzan **eskura** eramateko. Bai kalean lagunekin gaudenean mugikorra bateriarekin izatea garrantzitsua da baita gurasoekin komunikatzeko aukera izateko edozein momentutan. Bai bi kasu konkretu hauetan zein eguneroko beste edozeinetan batera gutxirekin edo bateriarik gabe geratzen bagara, oso ondo etorriko zaigu batera eramangarria eskura izateak.



Horrez gain, mugikorra kargatu dezakegu **natura kutsatu gabe**, onuragarria da bai guretzat, bai ingurunearentzat. Etxean gaudenean adibidez, kable bidezko kargadorea erabiltzen dugu, beraz elektrizitatea kontsumitzen dugu eta horrek kalteak dakartza ingurunean.



Proiektuarekin hasi baino lehen egin genituen merkatu azterketetatik ondorioztatu daitekeenez, bezeroaren gehiengoari **erabilgarria** iruditzen zaio batetik, ematen dituen onurengatik, eta bestetik, prezioaren aldetik ere gure produktua ordaintzeko prest egongo lirateke. Kargadore honen bidez eskuratzen ditugun gauza positiboak prezioarekin bat





datozelako, hau da, pena merezi duela diru kantitate hori gure produktua eskuratzen gastatzea.

Besteengandik bereizten duena **diseinua** da, oso erakargarria izateaz aparte, hainbat elementu bateratu egin ditugu produktua aurrera eramateko (funda, mugikorra, kargadorea...). Adibidez, mugikorreko funda desberdinak konbinatu daitezke nahiz eta kargadorea mugikorrarekin konektatuta egon.

Pertsonalizazioari dagokionez, produktua osotasunean pertsonalizatuta dago, diseinuarekin batera, gure itxura propio eman diogu produktuari.

